

EL DIARIO VASCO (2006-02-24)

## **OIARTZUN / 'Oiartzun-Etiopia Elkarlanean' Hamabostaldi Kulturala ospatuko da**

OIARTZUN. DV. ' Oiartzun-Etiopia Elkarlanean ' Hamabostaldi Kulturalaren baitan, bi argazki erakusketa eta lau hitzaldi prestatu dira Etiopia, nahiz bertoko biztanleen bizimodua oiartzuarrei gerturatzeko asmoz. Oiartzungo Udala, Oiartzungo Parrokia, Harri-Beltza elkarteak, Unai Samsó eta Oskar Zapirainen laguntzarekin antolatu eta Kutzak babestutako hamabostaldi honen ardatzetako bat, jendaurrera irekiko diren bi argazki erakusketak dira. Bata, Oiartzungo Udal osoko bilkuren aretoan egongo dena, Unai Samsó eta Oskar Zapirainen argazkiek osatuko dutena eta bestea berriz, Manuel Lekuona Udal Liburutegian kokatuko dena, Iñaki Caperochiren argazkiekin.

### **Etiopia**

Martxoaren 2an hasi eta 10a bitartean eskainiko diren lau hitzaldi ezberdinek, lurralde horrekin lotutako datu eta esperientzien berri emango dute. Hitzaldi zikloarekin hasteko, Eugenio Lizardik Etiopiako bere esperientzia azalduko du diapositiben bitartez, udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Hurrengo egunean, eta toki berean, Jangela solidarioa taldeak hirugarren munduan izan duen esperientzia agertuko du. Martxoaren 9an berriz, argazki erakusketan parte hartuko duen Iñaki Caperochik ' Herri bat ainitz begirada ' saioa eskainiko du Udal Liburutegian eta bukatzeko, martxoaren 10ean, Diasporaren txanda izango da. Diapositiben bidez esperientzia bizi baten berri emango die udaletxeko osoko bilkuren aretora gerturatzen direnei. Hitzaldi guztiak arratsaldeko 19:30etan izango dira.